



ETXEBERRIA GURIDI, Patxi

Zuzenbide Prozesaleko irakaslea  
EHUko Zuzenbide Fakultatea  
Manuel de Lardizabal, 2  
20009 Donostia  
dppetgup@sc.ehu.es

BIBLID [1137-1951 (2000), 6; 149-158]

# Euskaraz auzitaratzeko eskubidea

(The right to litigate in Basque)

**J**

arraian, Justizia Administrazioarako indarreetan dagoen araudiak hizkuntzaren inguruan zer-nolako konponbideak eskaintzen dituen aztertuko da, eta bereziki euskararen ezagutzak zer balioespen daukan.

**a**

continuación se analiza la normativa vigente en materia lingüística respecto a la Administración de Justicia, y, en especial, la valoración que se le otorga al conocimiento del euskara a la hora de evaluar a los aspirantes a la judicatura.

**N**

ous étudions ensuite les normes en vigueur en matière linguistique en ce qui concerne l'Administration de Justice et, spécialement, la valeur que l'on prête à la connaissance du basque au moment d'évaluer les aspirants à la magistrature.

1. Sarrera. 2. Eskumenezko organu elebidunen osakera eta auzien banaketa: 2.1. Araudiak ematen dituen aukerak. 2.2. Auzien banaketarako arauen moldaketa. 3. Legez aurretik zehaztutako epaile arrunta izateko eskubidea: 3.1. Epaile arrunta. 3.2. Legez aurretik zehaztutako epailea.

## 1. Sarrera

Egun indarrean dagoen araudiak hizkuntza ofizialen ezagutza meritu bezala baliozta daitekeen irizpidetzat hartzen du. Justizia Administrazioiko zerbitzuan dagoen pertsonalekiko, LOBJ 471. art.an zera adierazten da, berezko hizkuntza ofiziala duten autonomia erkidegoetako postuak betetzeko lehiaketetan, bertako hizkuntzaren ezagutza merezimendu gisa kontuan hartuko dela, araubidez zehaztuko den moduan. Idazkari Judizialen Gorputzeko Erregelamendu Organikoak (Errege Dekretua 429/1988, apirilaren 29koa) dio ezagutza hori balioztatuko dela funtzionarioari dagokion aitzinatasonari beste sei urte gehituz (33.7. art.). Ofizial, Laguntzaile eta Agente Gorputzen Erregelamenduaren arabera (Errege Dekretua 249/1996, otsailaren 16koa), hizkuntza ofizialen ezagutza meritutzat har daiteke, ez bakarrik lanpostuak betetzeko lekualdaketa-lehiaketetan<sup>1</sup>, baita ere barne promozio lehiaketa mugatuetan<sup>2</sup>.

Epaile eta magistratuekiko LOBJ 341. art.an, antzeko meritu aipamena egiten da hizkuntza ezagutzari buruz<sup>3</sup>. Agindu hau gauzatzea gatazkatsuagoa izan da, hainbat epaile eta magistratu hasieran artikulua honen garapenerako emandako araudiaren aurka agertu baitziren<sup>4</sup>. Egun, gai honen arauketa KNBJak 1998ko otsailaren 25ean emandako Akordio batean arautzen da eta ezagutzaren balioztapena Karrera Judizialeko maila gutzieren

**“ Berezko hizkuntza ofiziala duten autonomia erkidegoetako postuak betetzeko lehiaketan, bertako hizkuntzaren ezagutza merezimendu gisa hartuko da kontuan**



egoera kontuan harturik egiten da, hau da, progresiboki<sup>5</sup>. Ulertezina da Ministerio Fiskalari buruzko araudietan hizkuntza ofizialari buruzko ezagutzaren aipamenik ere ez egitea.

Orain artekoak bere garrantzia izango du etorkizunari begira Justizia Administrazioiko partaideengan euskara ikasteko asmoa sustatzeko, lan egoera edo mailaz hobetzeko erabakiorra izango baita hemendik aurrera. Baina hau guztia, esan bezala, epe luzeko konponbidea izan daiteke euskararen normalkuntzarako. Baina bitartean Justizia Administrazioan diharduten alderdien eskubidea ere bermatu egin behar da. Horretarako, indarrean dagoen araudiak —aldaketarik gabe— eskaintzen dituen konponbideak aztertuko ditugu. Berehalako konponbideak dira eta, horregatik, agian ez egokienak, ezta ere guztion gustokoenak, baina behin-behineko arazoa konpontzera lagun dezaketenak.

1. Ziurtagiri ofizialaren bidez egiaztatu beharko da eta gehiengoz sei puntutan balioztatuko da ezagutza-mailaren arabera (54.9. art.). Erregelamendu berean, 2. Xedapen Gehigarrian, puntu horien banaketa nola egingo den Euskadiko Autonomia Erkidegoan jasotzen da bakoitzaren hizkuntz-perfilaren arabera. Puntu bakoitzak aitzinatason urte baten balioa du (54.8.art.).
2. 5.4. eta 11.4. artikuluetan (bai batean bai bestean, gehiengoz sei puntutan baliozta daiteke). Erregelamendu berean berezitasun bat jasotzen da baliabide pertsonalak transferituta dituzten autonomia erkidegoentzat: 20. art.ren arabera, Erkidego hauetan baita txanda irekiko deialdietan hizkuntzaren ezagutza kontuan har daiteke, froga hau borondatezkoa izango da eta ezin daiteke kanporatzailea izan.
3. Hain zuzen ere, hizkuntza ofiziala eta Zuzenbide Zibil Berezi edo Foralaren ezagutza, lehentasuna duen meritutzat balioztatuko behar dela dio.
4. Botere Judizialeko Kontseilu Nagusiak (KNBJ) 1991ko urriaren 23an Akordio bat eman zuen merituak zentzu honetan zehaztuz: hizkuntza ofizialaren ezagutza aitzinatasoneko sei urtetan balioztatuz eta Zuzenbide Zibil Berezi eta Forala hiru urtetan, noski berezko hizkuntza edo Zuzenbidea duten autonomia erkidegoetan ospatutako lehiaketetan. Akordio hau aurkatua izan zen (eta ondorioz KNBJak esekitzea erabaki zuen 1992ko urtarrilaren 15ean) eta Auzitegi Gorenak helegitea estimatu zuen, laburtuz, argudio hauek erabiliz: gehiegizkoa (proportzionaltasunaren aurkakoa) zela hizkuntzaren ezagutzari zuzenbide ezagutzari baino balio bikoitza ematea eta, bestetik, Karrera Judizialeko egoera kontuan hartuz sei urteko balioztapena lehentasun meritua baino gehiago, meritu erabakiorra bihurtzen zela (Epaia, 1995eko apirilaren 29koa -Ar. 3478-).
5. Aurretik esan behar da Akordio honek Karrera Judizialeko Erregelamendua osatzen duela (1/1995, ekainaren 7koa), gai hau arautzen duen III. Titulua edukirik gabe baitzegoen Auzitegi Gorenak ebazpena eman bitartean. Ezagutza horrela balioztatzen da (110. art.): a) eskumenezko organua epaile kategoriaz horniturik badago, urte beteko aitzinatason balioa; b) organua pertsona bakarrekoa izanik magistratu kategoria badagokio titularrari, bi urteko aitzinatasona eta d) organua kolegiatua bada, hiru urteko aitzinatason balioa. Era berean balioztatzen da Zuzenbide Zibil Berezi edo Foralaren ezagutza (112. art.).



## 2. Eskumenezko organu elebidunen osakera eta auzien banaketa

### 2.1. Araudiak ematen dituen aukerak

Justizia Administrazioan parte hartzen duten kategoria profesional desberdinetan badago jadanik bi hizkuntza ofizialak menperatzen dituen hainbat pertsona (epaile, fiskal, idazkari, etab.). Lehenbailehen euskara hutsez auzitaratzeko eskaerari erantzun bat emateko konponbidea izan daiteke pertsona horiek epaitegi edo auzitegi berdinetan biltzea.

Organu judizialak pertsona bakarrekoak izanez gero (epaitegiak) eta dagokion epai barrutian maila berdineko bat baino gehiago baleude, nahikoa litzateke horietako bat euskaraz jarduteko gai izatea. Horretarako, auziak banatzeko momentuan egoera hau kontuan hartu beharko litzateke, baina hau ondoren aztertuko dugun arazoa izango da.

Organu judiziala kolegiatua denean, berriz, atal (sekzio) desberdinak osatzeko garaian ahaleginak egingo dira atal berdinean magistratu elebidunak biltzeko. LOBJko 198.1. art.ak auzitegiko buruaren gain uzten du atal desberdinen osakera zehaztea, urtero gobernu salak onartutako irizpideen arabera. LOBJko 152.1.2.ak, berriz, dio gobernu salak urtero atalen osakerarako beharrezko txandak zehaztuko dituela eta horretarako "irizpide objektiboak" izango dituela kontuan. Ezin daiteke ukatu hizkuntza ofizialaren ezagutza irizpide objektiboa denik eta beraz aplikagarria izan daitekeena.

Neurri hauek aplikatuz aipaturiko helburua betetzea ezinezkoa izan daiteke behar adina (karrerako) epaile edo magistratu elebidun ez badago. Kasu hauetan ordezeko magistratu eta epaileak izendatzea izan daiteke konponbidea<sup>6</sup>. LOBJko 200.1. artikulua zera dio, eskumendun organu kolegiatuetan ordezeko magistratu

zerrenda bat egon daitekeela eta bere txandan deituak izango direnak «ezuste eta ohi kanpoko egoerengatik salak osatzea ezinezkoa denean». 16/1994 LOak, azaroaren 8koa, eduki berria eman zion artikulua honi eta gaur egun posible da ordezeko magistratuak adskripzio erregimenean atal baterako izendatzea —indartze neurri bezala)—<sup>7</sup>. Honek bere garrantzia du aztertzen ari garen eremuan, dagoen zerrendatik txanda errespetatuz deitu beharrean posible delako ordezeko magistratu elebiduna iraunkortasunez izendatzea atal baterako.

Horretarako aipa daitekeen oztoporik nagusia zera da, LOBJ 201.3. eta 212.3. art.ek ordezeko magistratu edo epaileak izendatzeko kontuan hartu behar diren merezimenduen artean ez dutela euskararen ezagutzari buruzko aipamenik egiten<sup>8</sup>. Dena den, artikulua horietan aipatzen diren merezimenduek lehentasuna dute eta horrek ez du esan nahi gainerantzekoak baztertu behar direnik. Karrera Judizialeko Erregelamenduak 1/1995, bere 133.1 art.an esandakoa osatuz, beste irizpide batzuk ematen ditu euskararen ezagutza balioztatu ahal izateko (hautagaien zirkunstantzia pertsonalak eta profesionalak, kargua egikaritzeko gaitasuna,...)<sup>9</sup>.

Eragozpen gehiago planteatzen ditu, aztertzen ari garen ikuspegitik, LOBJko III. Liburuko I Tituluko IV. Kapituluako ordezkotza erregimenak. LOBJko 207. artikulua arabera, «epaile eta magistratu lanpostuak bete gabe egotean, baimena, zerbitzu berezietan edo arrazoibidetzen duten beste kasuetan ordezkotuko dira». Ez da zehazki jasotzen ordezkotzaren arrazoi bezala ordezkotua izan behar den epaile edo magistratuak hizkuntza ofizialik ez jakitea, baina azken klausula orokorrak ez du arrazoi hau baztertzera derrigortzen. Dena den, esan bezala, arazoak gehiago dira abantailak baino, neurri hauek hartzekotan. Batetik, ordezkotzarako aipatzen diren irizpideak ordezkotzaren kategoria, aitzinatasuna edo eskalafoian duen postua dira (LOBJko 208 eta 209. artikulua). Bestetik, ordezkotzaren helburua ez da ordezeko epaile edo magistratuak euskara hutsez hasitako auziak bakarrik ezagutzea<sup>10</sup>.

6. DE LA OLIVA SANTOSe iritiz, praktikan gehiegi ugaritu den konponbidea da hau, Los verdaderos Tribunales en España: legalidad y derecho al Juez predeterminado por la ley. Madrid: Centro de Estudios Ramón Areces, 1992; 81-91 orr.
7. Legez aldaketa hau egin aurretik KNBJak 1991ko urtarrilaren 16an emandako Akordio baten bidez gauza zitekeen ere. Ikus honen kontra A. DE LA OLIVA SANTOSe eginiko kritika, Los verdaderos Tribunales en España..., aip., 85 eta 87 orr. Beti ere ezin daitezke ordezeko magistratu bat baino gehiago atal baterako izendatu, LOBJko 200.1. artikulua arabera.
8. LOBJko 201.3. art.ak dio lehentasuna dutela dagoeneko epaile moduan, edo idazkari judizial bezala edo Karrera Fiskalean ordezeko bezala jardun dutenek edo arlo juridikoan irakaskuntzan edo lanbideetan jardunek.
9. Ordezeko magistratuen izendapena gauzatu ondoren, gobernu salari dagokio jarraibideak ematea deituak izateko txandak zehazteko irizpideak azalduz (1/1995 Karrera Judizialeko Erregelamenduaren 143.3. art.). Hemen ere ez da propio aipatzen hizkuntza ofizialen ezagutza kontuan har daitekeenik, baina beste irizpideen artean (funtzio judizialen egikaritzan emandako denbora, espezialitate juridikoaren maila) honako hau ere aipatzen da: «ordezkotza ematen den organuaren egoera», eta egoera horren adierazgarri izan daiteke jadanik Karrerako bi magistratu elebidun egotea eta ordezeko elebidun baten beharra izatea.
10. LOBJko 212.1. artikulua arabera, ordezkotza, bere epaitegiko funtzioa egikaritzeaz gain, ordezkotzen duen epaitegiko auzi guztiez jabetuko da. Arrazoi honengatik, L.A. DE DIEGO DÍEZek dio benetako ordezkotza ez dela epaile eta magistratu titularren artean ematen dena, Karrera Judizialekoa ez den norbait (epaile eta magistratu ordezekoak) izendatzen denean baizik, El derecho al Juez ordinario predeterminado por la Ley. Madrid: Tecnos, 1998, 246 eta ondorengo orr.



Aipagarriak izan daitezke, baita ere, 16/1994 LOaren ondorioz egindako aldaketak LOBJan. LO honek Kapitulu berri batean (IV BIS) indartze neurriak jasotzen ditu. Kapitulu honetan aipatzen diren neurriak salbuespenezko izaera dute LOBJko 216bis artikulua araberan, «epaitegi edo auzitegi batean auzien aparteko atzerapena edo pilaketa» dagoenean bakarrik har daitezkeen neurriak dira. Hemen ere ez da zehazki hizkuntza ofizialen ezagutza eza aipatzen bidezko arrazoi bezala, baina zirkunstantzia hau izan daiteke, hain zuzen ere, atzerapenaren arrazoietako bat.

Bertan laguntza edo indartze neurri bezala honako hauek aipatzen dira: epaile eta magistratuen formakuntza eta hautaketa zentruan kurtso teoriko eta praktikoa burutzen ari diren epaile adjuntoak ordezkotza bezala izendatzea<sup>11</sup>; epaile edo magistratuei zerbitzu komisioak ematea; ordezkotza epaile eta magistratuen adskripzioa titularrekin batera erabakitzeko ez dauden auziak izapidatzeko (LOBJko 216bis art.)<sup>11</sup> Zerbitzu komisioen kasurako bakarrik aipatzen baldin bada ere, interesgarria da azpimarratzea hautagai egokiena zein den erabakitzeko legean jasotzen diren irizpideak. Hauen artean jasotzen dira eskumenezko arlo berdinekoa izatea edo zerbitzu komisioa beteko duen epaile edo magistratuaren epaitegi edo auzitegiaren egoera zein den. Baina berrikuntza garrantzizkoa suposatzen du jasotzen den beste meritu batek, hain zuzen ere «komisioa beteko den autonomia erkidegoko zuzenbidea edo hizkuntza eta zuzenbide sustantibo propioaren ezagutza» [LOBJko 216bis 3.2.d) art.]. Esan bezala, hizkuntzaren ezagutza hau bakarrik zerbitzu komisioaren kasuan da aplikagarri, baina, beste kasuetarako zabalduz gero, neurri handi batean konpon zitekeen aztertzen ari garen arazoa.

Epaitegi eta auzitegi elebidunen osakerari buruzko puntu hau amaitu aurretik, LOBJan jasotzen den beste aukera batez arituko gara, hau da, aldibaterako epaileak izendatzeko ahalbidez. Aldibaterako epaileak (*provisión temporal*), ordezkotza epaile eta magistratuak bezala, Karrera Judizialeko kide izan gabe eskumenezko ahalmena egikaritzen duten pertsonak dira (LOBJko 298.2. art.)<sup>12</sup> Kategoria honetako epaileak izendatuak izango dira, Justizia Auzitegi Nagusiko gobernu salaren iritziz nahikoak edo egokiak ez direnean orain arte aipaturiko neurriak

(ordezkotza, eskumenaren luzamendua, zerbitzu komisioak) bete gabe dagoen organu judizial bat osatzeko (LOBJko 429. art.). Ohi kanpoko erregimena bada ere, zera azpimarratu nahi genuke euskara jakitearen balioztasunari buruz: kasu honetan ere berrikuntza moduan<sup>13</sup> LOBJko 431.2. artikulak dio Zuzenbide edo hizkuntza propioak dituzten autonomia erkidegotan hauen ezagutza meritu bezala balioztatuko dela epaile mota hauek izendatzeko garaian.

## 2.2. Auzien banaketarako arauen moldaketa

Epaitegi eta auzitegi elebidunak osatzea posible bada ere, hori ez da nahikoa. Orain arte proposaturiko konponbideek eraginkortasuna izan dezaten beharrezkoa izango da organu judizialen artean auzien banaketa egiterakoan zirkunstantzia hori kontuan izatea. Modu horretan euskara hutsez aurkezturiko auziak organu elebidunetara iritsiko dira. LOBJren araberan, Justizia Auzitegi Nagusietako gobernu salei dagokie urtero banaketa arauak onartzea (152.1.1 eta 152.2.1 art.). Eskumen-arlo berdineko epaitegien artean egin behar bada banaketa, arauen proposamena epaile-batzordeari dagokio egitea (LOBJ 167.1 eta 170.1 art.). Azaldutako artikuluetan, berriz, ez da zehazten zeintzuk izango diren banaketa-arauen irizpideak.

Zalantzak desagiteko Erregelamendu 5/1995ra (jarduera judizialen eranskinezko aspektuak arautzen dituena) jo behar dugu. Erregelamendu honen Arrazoiaren Azalpenaren azpimarratzen da bertan araututakoak eranskinezko edo akzesorio izaera duela, funtsezkoa den gaia legearen bidez arautu behar baita. Gure ustez, Erregelamenduak dioena ez dator bat errealitatearekin, esan bezala LOBJak ez baitu ezer jasotzen auzien banaketa nola egingo den zehazterakoan. Eta hau garrantzizko okerra litzateke, gure iritziz, auzien banaketak lege aurretik zehaztutako epaile arrunta izateko eskubidean (KE 24.2. art.) eragin zuzena duelako.

Esan bezala, LOBJan ez dira garbi zehazten auzien banaketa egiterakoan jarraitu behar diren irizpideak. Aipaturiko Erregelamendu 5/1995ra jo behar dugu zehaztasun hori argitzeko. Bere 24.2 art.ak zera dio, banaketa arauak

11. Prestakuntza ikastaro honen barnean, epaile edo magistratu izango direnak organu judizialean praktika-garai bat burutu behar dute. Batez ere epaitegiko edo auzitegiko titularrei laguntza eta kolaborazioa emanez, baina salbuespen bezala ordezkotza edo indartze funtzioak bete ditzakete (LOBJko 307.1. art.).

12. Karrera Judizialeko Erregelamenduak (1/1995) bere 149.1. artikuluan erregimen honen apartekotasuna edo ohi kanpokotasuna azpimarratzen du. L.A. DE DIEGO DÍEZek erregimen honi buruz dio erresiduala eta iraungitzeaz dagoena dela, *El derecho al Juez ordinario...*, aip., 245. or. Honetaz aparte, 16/1994 LOko 4. Xedapen Gehigarriak erregimen berezi hau bost urtetan indarrean egongo dela dio.

13. 16/1994 LO onartu aurretik ez baitzegoen inolako aipamenik zentzu honetan LOBJan.





Abokatu Euskaldunen Sindikatu-ko kide batzuk prentsaurreko bat ematen.

irizpide kuantitatibo, zenbateko eta aleatorioak jarraituz egingo direla. Lehendabiziko bi irizpideek ez dute inolako arazorik planteatzen, organu judizial elebidunak ez dituelako soilik euskara hutsez aurkeztutako auziak ezagutuko, gazteleraz aurkeztutakoak ere, maila berdineko epaitegiak —bat baino gehiago badago epai barruti horretan— edo atalak —baita ere auzitegi horretan bat baino gehiago baldin badago— karga edo lan kopuru berdina izanez. Auzien banaketarako irizpide aleatorioak arazo gehiago sor ditzake. Batez ere maila berdineko epaitegi elebidun bakarria baldin badago epai barruti batean edo, era berean, auzitegi baten atal bat baino gehiago baditu, baina horietatik bakarria soilik elebiduna<sup>14</sup>. Egia da, baita ere, irizpide aleatorioa bermatzea ezinezkoa dela mota berdineko epaitegi bakarria dagoenean epai barruti batean edo auzitegi batek atalik ez duenean (sala bakarria), kasu horietan organu judizial bakarrak ezagutuko baititu auzi guztiak. Gainera, prozesu zibiletan irizpide aleatorio honek ez dauka horrenbesteko garrantzirik, alderdien arteko sumisioa baldin badago aukera dezaketelako lurraldetasunaren ikuspegitik organu zehatz baten eskuduntzapean jartzea. Zein neurritan eragiten duen ala ez irizpide hau —eta besteak— errespetatzeak, hurrengo puntuan aztertuko dugu.

### 3. Legez aurretik zehaztutako epaile arrunta izateko eskubidea

Sarreran adierazi dugun bezala, azterketa honen helburua berehalako eta behin-behineko konponbideak proposatzea da. Indarrean dagoen araudia aplikatuz, hau da, lege aldaketaren zain egon gabe. Azaldu dugu, baita ere, proposaturiko konponbideak behin-behinekotasun horregatik guztion gustokoak ez direla izango. Ikuspegi juridikora mugatuz, aurreko proposamenei egin dakiekeen kritikarik nagusia zera da, legez aurretik zehaztutako epaile arrunta izateko eskubidea —oinarrizko eskubidea hain zuzen ere (KE 24.2. art.)— urraturik geratzen den ala ez.

Zentzu honetan, Donostiako Entzutegi Probintzialeko lehen atalaren iritziz, funtzionario elebidun bereziak izendatzeak, epaiketa euskara hutsez eta itzultzaile edo interpretarien bitartekotasunik gabe ospa dadin, aipaturiko oinarrizko eskubidearen bortxaketa suposatuko luke<sup>15</sup>. Azken puntu hau sakontasunez aztertzen saiatuko gara, aurreko epigrafean adierazitako konponbideen egingarritasunarentzat erabakiorra baita.

14. Banaketaren irizpide aleatorioak ere ez du arazorik sortarazten gutxienez bi epaitegi edo atal elebidun badaude, maila berdinekoak.

15. Autoa, 1997ko urtarrilaren 28koa. Auto hau suplika helegitearen bidez aurkatua izan zen eta 1997ko apirilaren 23ko beste Auto baten bidez desestimatu. Azken ebazpen honen aurka babes helegitea tartekatu zen Auzitegi Konstituzionalaren aurrean eta honek 1997ko urriaren 1eko Probidentzia baten bidez ez zuen tramitera onartu, edukirik gabekoa zela argudiatuz.

### 3.1. Epaile arrunta

J. MONTERO AROCAren ustez, legez aurretik zehaztutako epaile arrunta izateko eskubidean bi eduki desberdin bereiztu daitezke eta ez eskubide bakarra: batetik, epaile arruntaren eskubidea eta, bestetik, legez aurretik zehaztutako epailearen eskubidea<sup>16</sup>. Ezer baino lehen esan behar da eskubide honen jatorria konstituzionalismo mugimenduaren hasieran kokatu behar dela, aginte edo botere banaketarekin batera<sup>17</sup>. Bestetik, epaile arrunta eta epaile naturalaren eskubidea ez dira gauza berdinak; bata eta besteak esanahi desberdina dute<sup>18</sup>. I. DíEZ PICAZOren esanetan, epaile naturalaren eskubideak zerbait gehitzen dio legez aurretik zehaztutako epaileari, eduki zehatz bat galdatuz<sup>19</sup>.

«Arrunta» izatearen esanahian, bi ikuspegi bereiz daitezke J. MONTERO AROCAren ustez: batetik, eskumenaren batasunaren ikuspegitik (KE 117.5 artikuluan jasota dagoena) Auzitegi arruntak lirerateke eskuduntza zentzu orokorrean egotzita dutenak, eta horren ondorioa litzateke auzitegi hauek bereganatuko litzatekeela modu zehatz batez beste auzitegiei egotzi ez zaizkien auziak (*vis atractiva*); arrunta izaera nabarmentzeko

bigarren ikuspegia antolamenduarena litzateke, eta izaera hori bereganatu ahal izateko bi baldintza dira bete beharrekoak: a) auzitegi edo epaitegi horiek LOBJan jasota eta araututa egon behar dute; b) bertako magistratu eta epaileek Konstituzioan jasotako baldintzapean izendatuta izan behar dute<sup>20</sup>. Bestalde, legezko epailearen ikuspegitik (KE 24.2. art.), epaile arruntak esan nahi du «epaile independentea, inpartziala, lege eta konstituzioko berme guztiez ezarria, bere eskuduntza eta dagokion prozeduraren arabera jarduten duena»<sup>21</sup>.

I. DíEZ-PICAZO GIMÉNEZ-en ustez, epaile arrunta eta epaile berezia ez daude kontrajarriak, epaile berezitat eskuduntza berezia duena ulertzen bada soilik<sup>22</sup>; ondorioa zeharo bestelakoa litzateke epaile berezi horrek suposatzen duenean erregimen organiko berezi baten arabera antolatuta egotea, hau da, KE 24.2 artikuluan epaile arruntak esan nahi du Konstituzioan jasotako estatutu juridikoaren pean egon behar dutela epaile eta magistratu guztiek<sup>23</sup>. Dena den, autore honen iritziz, epaile arruntaren edukitik kanpo geratuko lirerateke KE 117.1 artikuluko bermak, hau da, independentzia, aldaezintasuna, inpartzialtasuna, legearekiko menpekotasuna, etab<sup>24</sup>.

16. Autore honen iritziz, nahasketa hau Auzitegi Konstituzionalaren hainbat ebazpenetan nabarmentzen da, adibidez, AKE 47/1983, maiatzaren 31koan, Sobre la imparcialidad del Juez y la incompatibilidad de funciones procesales. Valentzia: Tirant lo Blanch, 1999; 121-122 orr.
17. DíEZ PICAZOk horrela dio, nahiz eta errekonozitu Erdi Aroan eta Berrian aurrekinik zegoela non erregeek auzietan ex post factum Epaileak izendatzeko zuten ahalmen arbitrarioaren aurkako manifestaziorik zeuden, El derecho fundamental al Juez ordinario predeterminado por la Ley. In: Revista Española de Derecho Constitucional, 31. zkia, 1991; 77. or. Epaile arruntak izan dituen esanahi historikoei buruz ikus S. DOMÍNGUEZ MARTÍN/A. GARCÍA FONTANET/J. CORBAL FERNÁNDEZ/M. SÁEZ PARGA/A. TATJER CLARA, El Derecho al Juez natural. In: La Ley, 4. liburukia; 1220-1223 orr.; eta J. BURGOS LADRÓN DE GUEVARA, El Juez ordinario predeterminado por la Ley. Madril: Universidad de Córdoba-Civitas, 1990; 14 eta ond. orr.
18. Konstituzioaren Aurreproiektuak artikulua honetan epaile naturalaren eskubidea jasotzen zuen zehazki, baina honek zekartzan arriskuak kontuan izanik, Unión de Centro Democrático Talde Parlamentarioak emendakin bat aurkeztu zuen egungo epaile arrunta eskubideagatik aldatuz.
19. Batez ere lurraldetasunaren ikuspegitik, El Derecho fundamental al Juez ordinario..., aip., 85-86 orr.; zentzu berdinean L.A. DE DIEGO DíEZ-en iritzia, El Derecho al Juez ordinario..., aip., 84 or.; Auzitegi Konstituzionalak ere behin baino gehiagotan azpimarratu du Konstituzioan jasotako «epaile legala» ez dela «epaile naturala», batez ere Auzitegi Nazionalaren eta Instrukziozko Epaitegi Zentralen legitimitatea aurkatu denean, ikus AKEE 199/1987, abenduaren 16koa; 56/1990, martxoaren 29koa. J. MONTERO AROCAren ustez arrazoi politikoak daude bereizketa hori egin denean, Derecho Jurisdiccional. I. Parte General. (ORTELLS/GÓMEZ COLOMER/MONTÓNekin batera), Valentzia: Tirant lo Blanch, 1998; 97 or. V. GIMENO SENDRAk ere bi kontzeptu hauek berdinak egiten ditu, El derecho constitucional al Juez legal. Constitución y Proceso. Madril: Tecnos, 1988, 56 or. Azken autore honek, Auzitegi Konstituzionaleko magistratu bezala, 56/1990 Epaian iritzi gehiengoaren kontrako Botu Partikularra mantendu zuen, argudiatuz Auzitegi Nazionalaren eskuduntzak hainbat eskubide urratzen zituela, eta horien artean KE 24.2. artikuluan jasotakoa.
20. Autorearen iritziz honako hauek dira: estatutu pertsonal bakarra guztiztat, estatutu hau lege organiko baten bidez arautu behar da, teknikoak edo adituak izan behar dira eta karrerakoak, gorputz bakar batetan bilduko dira, Botere Judizialeko Kontseilu Nagusiari dagokio beraien gestioa, Derecho Jurisdiccional. I. Parte General, aip., 78-81 orr. eta autore berdinak, Sobre la imparcialidad del Juez..., aip., 163-166 orr. B. REVERÓN PALENZUELAren ustez ere badago eskumenaren batasuna eta aztertzen ari garen eskubideen artean loturarik, lehendabizikoak hiritarrek duten legez aurretik zehaztutako epaile arruntaren eskubidearen bermea sendotzen baitu, Poder judicial, unidad jurisdiccional y Estado autonómico. Granada: Comares, 1996; 86 or.
21. Derecho Jurisdiccional. I. Parte General, aip., 98 or. eta Sobre la imparcialidad del Juez..., aip., 179 or. Zentzu zabal honen alde (hau da, KE 117.1. artikuluko bermeak ere bertan aipatuz: independentzia, aldaezintasuna, legearekiko menpekotasuna, etab.) ere azaltzen dira V. GIMENO SENDRA, El derecho constitucional al Juez legal, aip., 57-58 orr.; J. GARBERÍ LLOBREGAT, El derecho fundamental al Juez ordinario predeterminado por la ley. Cuadernos de Derecho Judicial, Jurisdicción y competencia penal. Madril: CGPJ, 1996, VI; 17-18 orr. Baita ere Auzitegi Konstituzionalaren hainbat ebazpen: AKEE 106/1989, ekainaren 8koa; 137/1994, maiatzaren 9koa; AKA 297/1995, azaroaren 6koa.
22. Horrela ez balitz ezinezkoak lirerateke eskumenezko arlo desberdinetan egiten den banaketa edota eskuduntza objektiboa arlo berdineko organuen artean banatzeko onartzen diren arauak edo gaiaren arabera osatzen diren organu espezializatuak, El derecho fundamental al Juez ordinario..., aip., 88-89 orr.
23. Zentzu honetan ulertu behar da arruntak direla Konstituzioak onartzen dituen auzitegi bereziak, hau da, Auzitegi Konstituzionala, Kontu Auzitegia eta eskumen militarreko Auzitegiak, El derecho fundamental al Juez ordinario..., aip., 89-91 orr. Hauxe gain, J. MONTERO AROCAk aipatzen ditu Zinpekoen Auzitegia eta ohiturazko Auzitegiak (Tribunal de Aguas), Derecho Jurisdiccional. I. Parte General, aip., 81 or. Auzitegi Konstituzionalak dio ere epaile arrunta dela bere erregimen organiko eta prozesala kontuan izanik organu berezi edo salbuespenezkotzat kalifikatu ezin daitekeenean (AKEE 47/1983, maiatzaren 31koa; 48/1987, irailaren 28koa; 6/1997, urtarrilaren 13koa; 64/1997, apirilaren 7koa).
24. Berme hauek guztiak errespetatu beharrekoak dira, baina autore honen iritziz Konstituzioko beste artikulua edo printzipioetan jasotzen direnak ez dira epaile arruntaren edukian kokatu behar, ez baldin bada nahi azken eskubide honen eraginkortasuna galtzea, El derecho fundamental al Juez ordinario..., aip., 92 or. Iritzi hau Auzitegi Konstituzionalaren ebazpen bakar batzuetan ere jasotzen da, adibidez AKE 138/1991, ekainaren 20koan, bereizten dira inpartzialtasun printzipioa batetik, zeina berme guztizko prozesua izateko eskubidean kokatuko bailitzatekeen, eta epaile arrunta bestetik.

Orain arte esandakoa kontuan izanik, baieztatu daiteke inolako zalantzarik gabe epaile eta magistratuen elebiduntasuna kontuan hartzeak auzitegi edo epaitegiak osatzeko garaian ez duela, inola ere, epaile arruntaren edukia urratzen. Ez dira *ex novo* organu judizial bereziak osatzen, ez da planta judiziala aldatzen, dagoeneko existitzen direnak osatzerakoan euskararen ezagutza kontuan hartu baizik. Organu elebidun hauen erregimen organikoa arrunta litzateke eta, aldi berean, hauek osatuko litzuketen epaile eta magistratuak estatutu organiko arruntaren pean leudeke.

### 3.2. Legez aurretik zehaztutako epailea

Epaile arruntaz gain, esan bezala, KE 24.2. artikuluan legez aurretik zehaztutako eskubidea jasotzen da. Eskubide honen ezaugarrietako batzuk guztiok eztabaidarik gabe onartzen ditugu, adibidez, auzia sortu aurretik lege baten bidez eratutako organu judiziala izan behar duela eta, baita ere, auzia hasi baino lehen lege horrek eskumenaz eta eskuduntzaz hornituriko organuak izan behar dutela. Organu bakoitzaren eskuduntza zehazteko irizpideek ere kasua edo auzia hasi baino lehen legean jasota egon behar dute, epaile ad hoc edo *ex post facto* saihestarren<sup>25</sup>.

Legez aurretik zehaztutako epaileari buruz orain arte esandakoaren arabera, baieztatu daiteke egin ditugun proposamenek ez dutela aipaturiko eskubidearen edukia urratzen. Epaitegi edo auzitegi batean epaile eta magistratu elebidunak biltzeak ez du inolako ondorioirik aurretik existitzen ziren organuetan, lege baten bidez auzia sortu baino lehen eratutako organuak baitira eta, aldi berean, eskumenez eta eskuduntzaz hornitutakoak. Organu hauek, baldintza guztiak errespetatuz eratutako organuak badira ere, beharrezkoa da, esan bezala, beren osakera eta auzien banaketa moldatzea euskara hutsez bultzatutako auziak ezagutu ahal izateko. Erabakiorra da, beraz, aztertzea organuaren osakera eta auzien banaketari buruzko moldaketek legez aurretik zehaztutako epailearen eskubidea urratzen duten ala ez.

### 3.2.1. Eskumenezko organuen osakera

I. DíEZ-PICAZO GIMÉNEZek terminu hauetan planteatzen du arazoa: legez aurretik zehaztutako epailea eskumenezko organura mugatzen da —autoreak *juez-órgano* deritzona—, edo ulertu behar da legez aurretik zehaztasunak jasotzea organu bakoitza osatzen duten pertsonetara zabaltzen dela —autoreak *juez-persona* deritzona—<sup>26</sup>. Autore honen iritziz, legez aurretik zehazturiko epailearen eskubidea zalantzarik gabe azken manifestaziora hedatu behar da eta argudio gisa dio «si la ratio del principio del juez legal consiste en asegurar la independencia de los juzgadores respecto de influencias externas (...), la más elemental interpretación teleológica del precepto conduce a extender su ámbito de protección al juez-persona, puesto que, en caso contrario, lo que el legislador u otros poderes públicos no podrían conseguir manipulando la creación o atribución de competencia de los órganos jurisdiccionales, lo tendrían a su alcance a través de una prostitución de los mecanismos de determinación de las personas de los juzgadores»<sup>27</sup>. Batez ere aipagarria da Auzitegi Konstituzionalak iritzi berdina eraiki zuela hasieratik, hau da, organu judizialaren osakerak legez aurretik zehaztuta egon behar du eta kasuz kasu legean jasotako prozedura jarraitu behar da organu bakoitzeko kideak izendatzerakoan, bestela, berme honen bortxaketa litzateke ondorioa nahikoa balitz organua mantentzea, baina bera osatzen duten kideak arbitrarioki izendatzea posible balitz, azken hauek egikaritzen baitute organuaren ahalmena<sup>28</sup>.

Organu judizialaren osakerak eraginik baldin badu legez aurretik zehaztutako epailearen eskubidean, zein ondorio ditu organu haiek osatzerakoan magistratuen elebiduntasuna kontuan hartzeak? Urratzen al du posibilitate honek aipaturiko eskubidearen edukia? Aurreratu dugu LOBJ 152.1.2. artikulua arabera gobernu salei dagokiela urtero auzitegi desberdineko Salak eta Atalak osatzeko txandak zehaztea, «irizpide objektiboak» jarraituz<sup>29</sup>. Galdera erabakiorra honako hau da: irizpide objektibotzat jo al daiteke organu judizialen osakera zehazterakoan magistratuen elebiduntasuna?

25. Auzitegi Konstituzionalak berak doktrina hau mantendu du KE 24.2. artikulua interpretatzerakoan: AKEE 47/1983, maiatzaren 31koa; 101/1984, azaroaren 8koa; 23/1986, otsailaren 14koa; 148/1987, irailaren 28koa; 199/1987, abenduaren 16koa; 93/1988, maiatzaren 24koa; 307/1993, urriaren 25koa; 65/1994, otsailaren 8koa eta AKA 158/1987, otsailaren 11koa; 923/1987, uztailaren 15koa.
26. El derecho fundamental al Juez ordinario..., aip., 80. or. G. RUIZ RUIZEK gauza berari buruz jarduteko beste hitzak erabiltzen ditu: «predeterminación del juez y su aplicación "en el interior" del órgano judicial», El derecho al Juez ordinario en la Constitución española. Madril: Centro Public. Ministerio Justicia-Civitas, 1991; 152 eta ond. orr. J. GARBERÍ LLOBREGATEk organuari buruz ari denean objektiboa deitzen dio berme honi eta personari buruz ari denean subjektiboa, El derecho fundamental al juez ordinario..., aip., 24-25 orr.
27. Gainera, dio, Konstituzioak eskubide hau aurreikusterakoan «epaile» (juez) hitza erabiltzen du, eta ez eskumendun organua edo auzitegia; azpimarratzen du ere, gutxikeriatzat jo daitekeen zentzu honek oinarritzko eskubidea urratzeko ahalmenik handiena duela, El derecho fundamental al Juez ordinario..., aip., 81-83 orr. Interpretazio hau da zabalena doktrinaren artean, ikus V. GIMENO SENDRA, El derecho constitucional al juez legal, aip., 62. or.; J. MONTERO AROCA, Derecho Jurisdiccional. I. Parte General, aip., 96. or.; J. GARBERÍ LLOBREGAT, El derecho fundamental al juez ordinario..., aip., 47 eta ond. orr.; A.L. DE DIEGO DíEZ, El derecho al juez ordinario..., aip., 225 eta ond. orr.
28. AKE 47/1983, maiatzaren 31koa; AKA 138/1989, martxoaren 13koa.
29. DE LA OLIVA SANTOSen ustez urteroko epea agortu ondoren aldaketarik egitea ez bada erabakitzen espreski baietsi behar direla irizpide horiek, legean prorrogatuta jasotzen ez den bitartean, Los verdaderos Tribunales en España..., aip., 31. or.



## “ Organu judizial elebidunak osatu ondoren beharrezkoa da segurtatzea organu hauek euskara hutsez aurkeztuko diren auziez jabetuko direla, eta horretarako premiazkoa da auzien banaketarako arauak moldatzea ”



Organu judiziala pertsonabakarrekoea denean (epaitegia) ez da planteatzen osakerari buruzko arazorik eta konponbidea auzien banaketara mugatzen da —ondorengo epigrafean aztertuko duguna—. Organu judiziala kolegiatua denean, berriz, esan bezala irizpide batzuk jarraitu behar dira atal edo salak osatzeko, eta elebiduntasuna irizpide objektiboa den ala ez da kontua. Auzitegi Konstituzionalak adierazi du ezin daitekeela zehaztasun maila berdina galdatu organuarekiko eta hau osatuko duten pertsonetikiko, kontuan hartuz azken hauen inguruan egon daitezkeen egoera bereziak (AKE 47/1983, maiatzaren 31koa)<sup>30</sup>. Azken epai honek azpimarratzen du organu judizialaren osakerak lege zehaztuta egon behar duela eta izendapenak egiterakoan lege jasotako prozedura jarraitu behar dela. Baina honetaz gain, zera dio epai honek: «no basta, sin embargo, con que se respete el mecanismo previsto por la Ley para la designación de los titulares de los órganos colegiados. Es preciso que este mecanismo posea el grado de concreción necesario para asegurar la independencia e imparcialidad de los Tribunales

que el derecho fundamental garantiza. (...) la normativa actual, preconstitucional, no responde plenamente a dicha exigencia constitucional. Pero del grado de indeterminación existente en ella no se deriva forzosamente la lesión del derecho fundamental en cuestión, pues tal indeterminación, indebidamente contenida en las normas, puede reducirse por el que las aplica, utilizando criterios objetivos. En el presente caso, los nombramientos realizados no aparecen como irracionales o arbitrarios en función de las circunstancias que se conocen del caso...» (5. oin. jur.)<sup>31</sup>.

Goiko lerroaldean jaso dugun ebazpenaren arabera ondorioztatzen da organu judizialaren osakerarako irizpide objektiboak kontrajarrita daudela izendapen irrazional eta bidegabekoekin edo, gutxienez, azken hauek saihesteko bermetzat eman daitezkeela<sup>32</sup>. Interpretazio hau onartuz gero, baietsi daiteke elebiduntasuna irizpidetzat hartzeak organu judizialak osatzeko garaian, ez duela objektibotasuna inola ere urratzen. V. GIMENO SENDRAren esanetan ere, organu judizial kolegiatuak osatzerakoan burutzen diren irregulartasunek KE 24.2. artikulua urratzen dute, etorkizunean emango diren ebazpenetan manipulazioen bitartez eragina izatea dutenean helburu<sup>33</sup>. Konklusio gisa, esan daiteke elebiduntasuna irizpide bezala erabiltzea organuak osatzeko garaian nekez har daitekeela etorkizunean emango diren ebazpenetan manipulazioen bitartez eragina izateko asmo bezala; gutxienez, derrigorrezkoa den bezala, irizpide hau auzi zehatza hasi baino lehen urtero gobernu salak onartzen badu<sup>34</sup>.

### 3.2.2. Auzien banaketa

Ikusi dugun bezala, organu judizialaren osakerak badu eraginik lege aurretik zehaztutako epaile eskubidean, baina elebiduntasuna irizpide bezala kontuan izateak aipaturiko osakera zehazterakoan ez du eskubide honen edukia urratzen, baldin eta irizpide hori auzia sortu aurretik jasotzen badu dagokion gobernu salak, objektiboa baita irizpide hau. Baina honekin ez da nahikoa, organu judizial elebidunak osatu ondoren

30. Zentzu berean, AKE 65/1994, otsailaren 28koak, dio: «es cierto, y así lo hemos advertido ya, que no cabe exigir el mismo grado de fijeza y predeterminación al órgano que a sus titulares, dadas las diversas contingencias que pueden afectar a éstos en su situación personal».
31. AKE 101/1984, azaroaren 8koan, berriz, 1947ko uztailaren 17ko Dekretu Legearen 1. artikulua konstituziokontraktotasuna ebazten du, argudiatuz arauak ez duela zehaztasun nahikoz eskuduntza finkatzen eta ondorioz gobernu salaren esku geratzen dela auzi batzuetan epaile ad hoc bat izendatzeko aukera (5. oin. jur.)
32. Díez-Picazo Giménez hitzetan, lege aurretik zehaztutako epaile arruntetik ondorioztatzen da eskubide honen helburuetako bat gobernuzko organuek duten diskrezionalitatea galaraztea dela, hau da, izendapen zehatzak egiterakoan organu hauek duten diskrezionalitatea Administrazio Zuzenbidean eman zaion zentzuan ulertu behar dela, hau da, ahalmen horiek araututa egon behar dira, El derecho fundamental al juez ordinario..., aip., 115. or.
33. Derecho Procesal Penal, (MORENO/CORTÉSekin batera), 2. ediz., Colex, Madril, 1997, 56-57. orr.
34. Proposamen honen oinarri bezala aipa daiteke ere Auzitegi Konstituzionalak aldarrikatu duen «zerbitzuaren beharra»ren doktrina: AKE 47/1983, maiatzaren 31koan, zera dio, organu judizialaren tituluarrak zehazterakoan kontuan izan behar direla «las diversas contingencias que pueden afectar a éstos en su situación personal y la exigencia, dimanante del interés público -las llamadas "necesidades del servicio"-, de que los distintos miembros del poder judicial colaboren dentro de la Administración de Justicia en los lugares en que su labor pueda ser más eficaz, supliendo, en la medida de lo posible, las disfuncionalidades del sistema» (2. oin. jur.).





beharrezkoa baita segurtatzea organu hauek euskara hutsez aurkeztuko diren auziez jabetuko direla, eta horretarako premiazkoa da auzien banaketarako arauak moldatzea. Beraz, erabakiorra izango da aztertzea ea epaitegi edo auzitegietako atalen artean auziak banatzeko arauak —euskarazko auziak organu elebidunetara igorri ahal izateko— legez aurretik zehaztutako epailearen eskubidearen edukia diren ala ez<sup>35</sup>.

Doktrinaren gehiengoaren ustez, auzien banaketarako arauak legez aurretik zehaztutako epailearen eskubidean kokatu behar dira. V. GIMENO SENDRAren esanetan, KE 24.2. artikulua urra daiteke auzien banaketa manipulatzan bada etorkizuneko ebazpenetan eragina izateko asmoz<sup>36</sup>. I. DíEZ-PICAZO GIMÉNEZek, zentzu berean, gaineratzen du KE 24.2. artikulua epaile-pertsonari —eta ez bakarrik epaile-organuari— zabaltzeko argudioak erabilgarriak direla kasu honetan ere. Autore honen ustez, zentzugabekoa litzateke mantentzea legez aurretik zehaztutako epailearen edukia organuen osakerara mugatzen dela eta kanpoan uztea organu bakoitzak ezagutuko dituen auzien zehaztapena. Hau da, auzien banaketarako arauak eskuduntza arauen funtzio bera betetzen dute<sup>37</sup>.

Dena den, ez dira nahastu behar aztertzen ari garen auzien banaketa eta LOBJ 98.1. artikuluan jasotako «banaketa espezializatu»<sup>38</sup>. Azken honetarako beharrezkoa da Botere

Judizialeko Kontseilu Nagusiaren erabaki zehatz bat eta helburua da epai barruti batean mota berdineko epaitegi bat baino gehiago daudenean hauetako bat edo batzuk dagokien eskumen arloko gai jakin batzuek edo exekuzioez arduratzea eskusiboki<sup>39</sup>. I. DíEZ-PICAZO GIMÉNEZ en usteetan, banaketa espezializatu honek *mutatis mutandi* gaiaren arabera eskuduntza objektiboari buruzko arauen funtzio bera betetzen dute<sup>40</sup>.

Esan bezala, ez dira nahasi behar auzien banaketa arrunta eta espezializatu hau: batetik, proposatu dugun konponbidean —elebiduntasunaren arabera banaketa egitea— ez da, LOBJ 98. artikuluan esaten den bezala, gaiaren izaera edo larritasuna edo prozesuaren garai zehatz bat kontuan hartzen, gaiak izaera desberdinekoak izan daitezke, baina azpimarratzen den ezaugarria erabiltzen den hizkuntza besterik ez da; bestetik, eta batez ere, banaketa mota bien arteko desberdintasuna eskusibotasunean datza. Hau da, LOBJ 98. artikulua arabera egindako espezializazioak esan nahi du gai zehatz horietaz organu judizial batzuk arduratuko direla eskusiboki eta ez bestea, eta gainera organu horiek eskusiboki gai horietaz eta ez besteez arduratuko direla<sup>41</sup>. Gure proposamenean, berriz, organu elebidunak ez lirateke arduratuko euskaraz bultzatutako auziez bakarrik, mota honetako auzi kopurua urria baita eta gainerako organuen lan kopurua berdindu arteko auziak ezagutuko lituzkete; gainera

35. Gure ustez egokia ez den doktrina korrante batek ezezkia mantendu du, ikus M. MONTORO PUERTO, Tutela efectiva y juez ordinario predeterminado por la ley. In: El Poder Judicial, III. Bol. Madrid: Instituto de Estudios Fiscales, 1983; 2139-2140. orr.; J. GUERRA SAN MARTÍN, Lecciones de Derecho Procesal Civil, I. Tomoa. Bilbo: Public. Univ. Deusto, 1978.
36. El derecho constitucional al juez legal, aip., 62. orr.; autore berdinak Derecho Procesal Penal, aip., 56-57 eta 120. orr.; J. MONTERO AROCAren ustez ere urrappan hau emango litzateke auzien banaketarako arauak aldatzen badira atal zehatz batek auzi zehatz bat ezagutzeko asmoz, Derecho Jurisdiccional. I. Parte General, aip., 96. orr.
37. El derecho fundamental al juez ordinario..., aip., 84. orr. Argudio honekin bat eginez, J. MONTERO AROCAk ere mantentzen du zentzu zehatzean auzien banaketarako arauak ez direla eskuduntza arauak, baina beraien bidez zehazten da organu judizial bakoitzak zein auziez ezagutuko duen, beraz, antzeko funtzioa betetzen dute, Sobre la imparcialidad del Juez..., aip., 143-144. orr.; baita ere G. RUIZ RUIZ, El derecho al juez ordinario..., aip., 155. or. Dena den, Auzitegi Konstituzionaleko eta Auzitegi Goreneko hainbat ebazpenetan ez da ideia hau mantentzen: adibidez AKA 652/1986, uztailaren 23koak, dio «ni siquiera se trata de atribución de competencia puesto que todos los Jueces tienen la misma, sino como la misma palabra indica -"reparto"- de distribuir los asuntos con el fin de que todos los Jueces conozcan del mismo número de ellos»; eta AKA 13/1989, urtarrilaren 16koan: «no puede equipararse la atribución de competencia a los diversos órganos judiciales, a la que afecta la predeterminación por ley formal ex artículo 24.2 de la Constitución, con el reparto o distribución del trabajo entre las diversas Salas o Secciones de un mismo Tribunal, dotadas ex lege de la misma competencia material, que responde a exigencias o conveniencias de orden puramente interno y organizativo»; baita AKE 205/1994, uztailaren 11koa. Zentzu berean AGE, 1998ko ekainak 25ekoan (RJA 5595) «de existir infracción de las normas de reparto (...) no afecta en absoluto a la competencia de los Juzgados de la localidad, puesto que el reparto sólo supone una mera distribución de asuntos entre aquéllos, que no pueden afectar a su competencia objetiva y territorial y, en ningún caso, trascendería a un derecho fundamental, de tal modo que supusiera una vulneración del Juez ordinario a que se refiere el texto constitucional»; baita ere AGE 1997ko uztailaren 29koan (RJA 5811): «las reglas internas de repartimiento de los asuntos carecen de relevancia procesal, de modo que su inobservancia entra de lleno en el espacio gubernativo y no afecta a la competencia objetiva (...)».
38. Ez da hau legeak erabiltzen duen deitura, doktrinak baizik, ikus I. DíEZ-PICAZO GIMÉNEZ, El derecho fundamental al juez ordinario..., aip., 84-85. orr.; baita L.A. DE DIEGO DíEZ, El derecho al juez ordinario..., aip., 197. orr.
39. Arau hau jarraituz, Lehen Instanztziako epaitegi bat baino gehiago dauden epai barrutietan, hauetako bat bihurtu daiteke, adibidez, Familiako Epaitegia. Aukera honen aurka J. BURGOS LADRÓN DE GUEVARA azaltzen da, argudiatuz epaile arrunta edo legalaren printzipioa urratzen dela, El juez ordinario predeterminado..., aip., 55-56. orr. A. DE LA OLIVA SANTOS ere LOBJ 98. artikulua ematen duen aukeraren aurka azaltzen zen hasiera batean, Derecho Procesal Civil, (FERNÁNDEZ LÓPEZekin batera), I. Bol., 2. edi. Madrid: Centro de Estudios Ramón Areces, 1991; 47-48. orr.; ondorengo lanetan hasierako posizioa leuntzen du, baina LOBJ 98. artikulua antzeko habilitaziorik ez dagoen bitartean gobernu saiek ezinezkoa dute gai bereziak atalen artean esleitzea, ikus Los verdaderos Tribunales en España..., aip., 134. orr.; eta Competencia, reparto, cambio de Tribunal y derecho al Juez predeterminado por la Ley (En torno a un caso de controvertida aplicación del art. 15 LJCA). In: Revista de Derecho Procesal. 1989, 3. zkia, 686. orr.
40. El derecho fundamental al juez ordinario..., aip., 84-85. orr.; baita ere doktrina gehiengoak, ikus J. MONTERO AROCA, Sobre la imparcialidad del Juez..., aip., 144-145. orr.; A. DE LA OLIVA SANTOS, Los verdaderos Tribunales en España..., aip., 132. orr.; autore berdinak, Competencia, reparto, cambio de Tribunal..., aip., 686-687. orr.; L.A. DE DIEGO DíEZ, El derecho al juez ordinario..., aip., 198-199. orr.
41. L.A. DE DIEGO DíEZ en esanetan, horren ondorioa izango da organu judizialek jatorriz zuten eskuduntza murriztu egiten dela espezializazioaren ondorioz, El derecho al juez ordinario..., aip., 197. orr.

euskarazko auzien ezagutza ez litzateke eskusiboa izango, hau da, mota berdineko beste organu judizial bat gai denean euskarazko auziak ezagutzeko, hauen banaketan ere parte hartuko luke.

Beraz, esan daiteke auzien banaketa organu judizialaren elebiduntasuna kontuan hartuz ez dela banaketa espezializatuaren mota bat (eta ez da aplikagarria LOBJ 98. art.), banaketa arruntaren manifestazioa baizik. Baina oraindik ere, ez diogu epigrafe honen hasieran planteatutako arazoari erantzunik eman; hau da, organu judizialaren elebiduntasuna kontuan izateak urratzen al ditu auzien banaketarako jasota dauden irizpideak? LOBJak ez ditu zehazten zeintzuk izango diren auzien banaketarako irizpideak; gai honi buruz arautzen duena zera da, nori dagokion banaketaren arauak onartzea eta nori hauen proposamena egitea (LOBJ 152, 167 eta 170 artikulua). Banaketaren irizpideak zeintzuk diren jakiteko, 5/1995 Erregelamendura, Jarduera Judizialaren Aspektu Osagarriak arautzen dituena, jo behar dugu. Bertan, 24.2. artikuluan, aipatzen diren irizpideak honako hauek dira: numerikoa, kuantitatiboa eta aleatorioa.

Irizpide numeriko eta kuantitatiboaren bitartez maila berdineko organuen artean lan kopuru berdina banatzea bermatzen da, baina ez da nahikoa organu judizial zehatz bati auzi zehatz bat egozte saihetsi nahi bada. Irizpide aleatorioak, berriz, arrisku hori bazterten du, baina ez da egokitzen Auzitegi Konstituzionalak bere ebazpenetan jaso duen «zerbitzuen beharra» doktrinari (AKE 47/1983, maiatzaren 31koa). Euskara hutsez bultzatutako auziez ezagutzeko organu judizial bat baino gehiago gai baldin badira, irizpide honek ez du arazorik planteatzen. Organu elebiduna bakarra bada, ezinezkoa litzateke aleatoriotasun hori bermatzea, euskara hutsezko auzi guztiak organu horri egotziko bailitzaizkioke, baina auzien banaketa razionalagoa litzateke, «zerbitzuaren beharren»

arabera, euskarazko auziak horretarako gai den organu batek ezagutuko lituzkeelako.

Doktrinaren ustez eta gure Auzitegien jurisprudentziaren arabera, esan daiteke auzien banaketarako irizpideak ez direla behin betikoak<sup>42</sup>. Badirudi erabakiorra zera dela: auzien banaketaren bidez etorkizunean emango diren ebazpenetan eraginik izateko posibilitatea baztertua<sup>43</sup>. Ideia hau azpimarratuz J. MONTERO AROCAk ere banaketarako arau objektiboak egon behar direla dio, hau da, ez da beharrezkoa auzien banaketa lege formal baten bidez jasotzea, baina bai irizpide objektiboz eta ez diskrezionalaz egitea<sup>44</sup>. Auzien banaketarako irizpideen objektibotasuna, Auzitegi Konstituzionalak ere bereganatu duena da<sup>45</sup>. Irizpideen objektibotasuna ere LOBJan azaltzen da auzitegi edo entzutegi batean magistratu txostengile edo ponentea izendatzeko garaian jarraitu behar diren txandei buruz arautzen duenean<sup>46</sup>. Beraz, eta nahikoa bada auzien banaketan irizpide objektiboak errespetatzea jarduera diskrezionalak saihestearren, ezin daiteke ukatu organuaren elebiduntasuna edo euskararen ezagutza kontuan hartzeak aipaturiko banaketa burutzerakoan ez duela urratzen legez aurretik zehaztutako epailearen eskubidea.

42. Arrunta da, adibidez, auzien banaketa egiterakoan arlo desberdinetan gaien arabera egitea banaketa. Bilboko Kontentzioso-administratiboko epaitegien artean banaketa horrela egiten da bi Epaitegien artean: gai-mota desberdinetan sailkatzen dira auziak (zergak, hazienda lokala, pertsonalari buruzkoak, zigor administratiboak, urbanismoa, hauteskunde prozedurak, etab.) eta epaitegi bakoitza gai zehatz batzuek arduratzen da. Bilboko epaitegi hauen arteko auzi banaketa arauen proposamena Boletín informativo del Colegio de Abogados de Bizkaia, 87. zkia. 1999, 2. or.-an jasotzen da.
43. V. GIMENO SENDRA, El derecho constitucional al juez legal, aip., 62. or. Zentzu berean A. DE LA OLIVA SANTOSEN ustetan, legez aurretik zehaztutako epailearen eskubidea urratu gera daiteke organu administratibo batek (gobernu salak, hain zuzen) nahiz eskumenezko eta eskuduntzazko arauak errespetatu, auzi zehatz bat organu zehatz bati egozteko ahalmena badu; manipulazio arriskuak zeharo baztertzeko beharrezkoa litzateke irizpide objektiboak jarraitzea auzien banaketan, Los verdaderos Tribunales en España..., aip., 133 eta 138 orr.
44. Derecho Jurisdiccional. I. Parte General, aip., 96. or; autore berak, Sobre la imparcialidad del Juez..., aip., 143. or.
45. AKE 205/1994, uztailaren 11koa, «la predeterminación legal del Juez que debe conocer de un asunto está referida al órgano jurisdiccional (...) y no a las diversas Salas o Secciones de un mismo Tribunal, dotadas ex lege de la misma competencia material, en relación con las cuales basta con que existan y se apliquen normas de reparto que establezcan criterios objetivos y de generalidad» (3. oin. jur.).
46. Hain zuzen ere, LOBJ 203.1. artikulua dio auzitegi edo entzutegi batean izapidetzen diren auzi bakoitzerako magistratu txostengile edo ponente bat izendatuko dela irizpide objektiboetan oinarrituz urte judizial hasierarako zehaztuko den txandaren arabera. J. MONTERO AROCAren ustetan ponentziak banatzeko arauak ez dute organuaren barne jarduera burokraziara eraman behar eta gai zehatz batean magistraturen bat aditua bada berari egotzi behar zaizkiola gai horri buruzko auziak, nahiz eta arau haien arabera ez egokitu, Derecho Jurisdiccional. I. Parte General (ORTELLS/GÓMEZ COLOMER/MONTÓNekin batera), 3. ediz. Bartzelona: J.M. Bosch, 1993; 120. or.